EUSKADI COP31-N

Azaroaren 8tik 12ra, Antalya (Turkia)

PRENTSA DOSIERRA

COP31: KONPROMISO GLOBALETIK LURRALDEETAN EKITERA

2026ko azaroaren 9tik 20ra, Antalya hiriak, Turkian, COP31 Klimaren Goi Bilera hartuko du, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Aldeen 31. Konferentzia. Klima arloko munduko foro multilateral nagusia da, eta ia herrialde guztiak biltzen diren gunea, krisi klimatikoari nola aurre egin adosteko, emisioak murriztetik, lurraldeak egokitzeraino. **Klima aldaketari aurre egiteko munduko hitzordu nagusia da.**

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza 2026ko azaroaren 8tik 12ra joango da COP31ra, kide hauekin:

- **Mikel Jauregi**, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua
- **Josu Bilbao**, Ingurumen sailburuordea
- **Adolfo Uriarte**, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendaria
- **Mikel Hidalgo**, Trantsizio Sozialeko proiektuak koordinatzeko aholkularia
- **Urko Odriozola**, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Harreman Instituzionalen zuzendaria

COP31 une bereziki garrantzitsuan dator. Nazio Batuen Erakundeak ekintza klimatikoa bizkortzeko eta nazioarteko lankidetza indartzeko erronkaren inguruan kokatu du Antalyako hitzordua, **gero eta ohikoagoak diren muturreko fenomeno meteorologikoen, tenperatura errekorren eta segurtasun energetikorik ezaren testuinguruan**.

Testuinguru horretan, hain zuen, Europako Batzordeak Erresilientzia Klimatikoaren Europako Esparru berria aurkeztu du 2026ko urriaren 27an, arrisku klimatikoak aurreratzera eta kudeatzera eta pertsonak, azpiegiturak eta ekonomia babestera bideratuta. Esparru horrek uztartu egiten ditu Erresilientzia Klimatikoari buruzko Europako Lege proposamen bat eta politika publikoetan eta inbertsio erabakietan egokitzapena integratzeko tresna praktiko eta laguntza neurriak. Tokiko eta eskualdeko agintarien zeregina indartzen du, proiektu pilotu,

aholkularitza eta soluzio trukearen bidez, eta erresilientzia kokatzen du Europako industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko aukera gisa.

Klimaren Goi Bilera honek, gainera, ikuspegi aldaketa bat planteatzen du: **negoziaziotik eta konpromisoetatik inplementazio eraginkorrera igarotzea**. Horretarako, zenbait alderdi eraman diytu lehen planora, hala nola elektrifikazioa, metanoaren eta hondakinen murrizketa, hiri eta eraikin erresilienteak, industrializazio berdea, eta konpromiso klimatikoak inbertsio eta emaitza zehatz bihurtzeko gai izango diren mekanismoak.

Kontua dagoeneko ez da soilik zer konpromiso hartu behar diren zehaztea, baizik eta konpromiso horiek nola bihurtu hiri, industria, kostalde, ibai, azpiegitura eta energia sistemen benetako eraldaketa.

ZERGATIK EGON BEHAR DU EUSKADIK COP31-N?

Negoziazio formalak estatuei dagozkien arren, eskualdeetako eta tokiko gobernuak funtsezko eragileak dira nazioarteko konpromisoak politika eta jarduera zehatz bihurtzeko unea iristen denean. Helburu orokorrak lurraldeetan gauzatzen dira: lurzorua antolatzen da, azpiegiturak eta zerbitzuak kudeatzen dira, ekonomia eta ingurumen politikak aplikatzen dira, eta egokitzapen proiektuak garatzen dira.

Euskadirentzat, COP31n egoteak hau esan nahi du:

- Nazioarteko elkarrizketa klimatikoan parte hartzea, egokitzapena praktikara eramaten ari den lurralde baten esperientziatik abiatuta.
- Egokitzapen klimatikoko proiektu erakusleak bizkorrago gauzatzeko finantzaketa bideak bilatzea.
- Klima eta energia trantsizioari lotutako euskal gaitasun teknologikoak eta enpresarialak erakustea.
- Ezagutza partekatzea, beste eskualde batzuetako esperientziak ezagutzea eta aliantzak eraikitzea.

Euskadik honelako goi bileretan duen presentzia ez da hutsetik abiatzen. Eusko Jaurlaritzak 2014an egindako Limako COP20tik du presentzia politikoa du COPetan, eta nazioarteko sareen bidez ere parte hartzen du etengabe, hala nola Regions4 eta Under2 Coalition sareen bidez, Euskadi sare horietako kide aktiboa baita: Euskadik bi sareen lehendakaritza izan du, eta, gaur egun, horien organo exekutiboetako kide da.

Nazioarteko esperientzia horri bi hamarkada baino gehiagoko bilakaera gehitu behar zaio, plangintza klimatikotik lurraldearen gainean soluzio zehatzak aplikatzeko. Gaur egun, euskal politikak aldaketa arintzea, trantsizio energetikoa, egokitzapena eta erresilientzia eta trantsizio justua integratzen ditu, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak babestuta.

COP31k, horrenbestez, Euskadirentzat bereziki garrantzitsua den ideia bat helarazteko aukera ematen du: **ekintza klimatikoa ez da soilik ingurumen politika**. **Politika industriala, berrikuntza, pertsonen eta azpiegituren babesa eta lehiakortasuna ere bada.**

ZER DARAMA EUSKADIK COP31-RA? EUSKADI CLIMATE CHANGE ADAPTATION LIVING LAB

Euskadi proposamen zehatz batekin iritsiko da COP31ra: egokitzapen klimatikoa berrikuntza aplikatu, lurraldearen babes, lehiakortasun eta beste eskualde batzuetara transferitu daitezkeen soluzio bihur daitekeela erakustea.

Hori da “Euskadi: Climate Change Adaptation Living Lab” proiektuaren planteamendua, Euskadi 2030 Industria Planean integratutako 20 proiektu eraldatzaileetako bat Proiektuak **ingurune errealetako sei erakusle** garatzen ditu, egokitzapen soluzioak baliozkotzeko, horien eraginkortasunari buruzko ebidentzia sortzeko eta Euskadiko beste leku batzuetara eta beste eskualde batzuetara transferitzen eta eskalatzen laguntzeko.

Climate Change Adaptation Living Lab Industria Planean txertatzeak ikuspegi aldaketa bat dakar. **Egokitzapena ez da ingurumen kontu huts gisa planteatzen, eta lehiakortasunarekin, berrikuntzarekin, ezagutzarekin, merkatu berriekin eta enpresa gaitasunekin ere lotzen da.**

Eredua esperimentaziorako lurralde sistema gisa ulertzen da, non administrazioek, udalek, eragile zientifiko eta teknologikoek, enpresek eta herritarrek lankidetzan jarduten duten.

Planteamendu hori bat dator Erresilientzia Klimatikoaren Europako Esparru berriarekin: arriskuei aurrea hartzea, egokitzapena erabaki publikoetan eta inbertsio erabakietan integratzea, eta ezagutza soluzio praktiko bihurtzea. Euskadi Climate Change Adaptation Living Lab-ek, ingurune errealetako erakusleen, erakundeen, zientziaren eta enpresen arteko lankidetzaren eta emaitzen ebaluazioaren bidez, lurraldera eramaten du orientazio hori, erreplika errazteko. Hala, pertsonen, ekosistemen eta azpiegituren babesa berrikuntza eta

lehiakortasun industrialarekin lotzen ditu, Europako esparruak erresilientziaren erdigunean jartzen dituen bi dimentsio landuz.

Hauek dira sei erakusleak:

1. Zarautz | Kostaldeko frontea egokitzea

- Erronka klimatikoa: itsas mailaren igoera, muturreko olatuak, higadura eta kostaldeko uholdeak.
- Erantzuna: Narros-Munoan esku hartzea, hondartzako elementuak kentzea, pasealekuko kota igotzea, hondartzarako sarbideak egokitzea, olatuei aurre egiteko soluzio eta babes berriak, eta dunetako sistema hobetu eta lehengoratzea. Proiektuaren asmoa da hondartzaren erresilientzia handitzea eta Kantauri itsasertzeko eta Arku Atlantikoko beste ingurune batzuetan aplikatu beharreko ezagutza sortzea.
- Aurreikusitako aurrekontua: 4,5 milioi euro.
- Gauzatzen.
- Europako funtsekin partzialki finantzatua: LIFE IP Urban Klima 2050.

2. Bakio | Urari lekua ematea

Erronka klimatikoa: ibai eta kostaldeko uholde konbinatua Estepona ibaiaren inguruan, zeina larriagotu egin baita ibaiak espazioa galtzeagatik eta kanalizazio historikoagatik.

- Erantzuna: urpean gera daitekeen baso bat sortzea, mareen eragina duen padura bat berreskuratzea, konektibitate hidraulikoa hobetzea eta drainatze jasangarria eta bioingeniaritzako teknikak dituen parke publiko bat sortzea.
- Aurreikusitako aurrekontua: 3 milioi euro.
- Gauzatzen.
- Europako funtsekin kofinantzatua: LIFE IP Urban Klima 2050.

3. Txingudi | Estuario erresilientea

- Erronka klimatikoa: itsas mailaren igoera, muturreko gertakariak eta biodibertsitatea galtzeko arriskua, balio ekologiko handiko estuario batean.
- Erantzuna: padurak handitzea eta berreskuratzea, modelizazio hidrodinamikoa, alerta goiztiarreko sistemak eta monitorizazioa. San Lorentzoko padura handitzea eta arrisku handieneko hiri eremuetarako soluzioak jasotzen ditu.
- Aurreikusitako aurrekontu: 9,8 eta 11,3 milioi euro artean.

- Gauzatzen.
- Europako funtsekin partzialki finantzatua: Horizon Europa Regions4Climate.

4. Astegieta | Zadorrako naturagunea berreskuratzea

- Erronka klimatikoa: urbanizazioak eta azpiegiturek ibilgu naturala aldatu duten eremu batean ibaian uholdeak gertatzeko arriskua.
- Erantzuna: Zadorrako meandro zaharra berreskuratzea, artifizializatutako azalerak eta oztopoak kentzea, ibilgu historikoa induskatzea, ibaiertzak landareztatzea eta habitat berriak sortzea.
- Aurreikusitako aurrekontua: 4 milioi euro.
- Gauzatzeko zain.

5. Bilboko Itsasadarra eta Klima-BIK 2050 | Metropoliaren egokitzapena

- Erronka klimatikoa: ibai uholdeak, mareakoak eta euri uretakoak, tenperaturen igoera eta biztanleria, azpiegitura eta jarduera ekonomikoen kontzentrazio handia.
- Erantzuna: bereizmen handiko biki digitala, birnaturalizatzeko eta drainatzeko neurriak, eta itsasadarraren ardatzeko udalerrietan banatutako jarduerak. Konektibitate berdea, ibaiertzak birsortzea, hezeguneak berreskuratzea eta hiriko drainadura egokitzea jasotzen ditu.
- Aurreikusitako aurrekontua: 26 milioi euro.
- Gauzatzen.
- Europako funtsekin partzialki finantzatutako diseinua: Life SIP BIK2050.

6. Legazpi | Hiri babesleku klimatikoa

- Erronka klimatikoa: beroa, bero uharteko efektua, eurite handiak eta azaleko isurketa Latxartegi inguruan.
- Erantzuna: zuhaiztia kontserbatzea eta handitzea, itzal espazioak, zoladura argiak eta iragazkorrak, hiri drainatze jasangarria, oinezkoentzako ibilbideak hobetzea eta egoteko eta elkartzeko espazio berriak.
- Aurreikusitako aurrekontua: 2,9 milioi euro.
- Gauzatzeko zain.

Climate Change Adaptation Living Lab-en balioa ez da jarduera bakoitzean bereizita ageri. Egiten duten ekarpena da erakusle horiek metodologia partekatu bihurtzea: irtenbideak egoera errealetan probatzea, emaitzak neurtzea,

ebidentzia sortzea, eskuratutako ezagutza partekatzea eta, ondoren, erreplika erraztea.

Kostaldea, padurak, ibaiak, estuarioak eta hiri espazioak lurralde laborategi handi gisa funtzionatzen dute, zeinean Euskadi biztanleak, ekosistemak, azpiegiturak eta jarduera ekonomikoa klima aldakor batetik babesten ikasten ari den.

Gainera, dimentsio ekonomiko erabakigarri bat dago. Euskadi 2030 Industria Planaren barruan sartzeak aukera ematen du egokitzapen klimatikoa euskal enpresek eta gaitasun teknologikoek garatutako ezagutza, berrikuntza aplikatua, enplegu espezializatua, merkatu berriak eta soluzio esportagarriak sortzeko.

Beraz, Euskadi egokitzapenaz hitz egiteko ez ezik, nola egiten den erakusteko ere iritsiko da COP31ra. Sei lurraldek, sei erronka klimatikok eta sei erakuslek benetako eskalako laborategi bihurtzen dute Euskadi, non zientziak, berrikuntzak, industriak eta erakundeek elkarrekin lan egiten duten etorkizuneko klimari aurrea hartzeko. Egokitzea babestea da, baina baita berritzea, ikastea eta Euskaditik beste lurralde batzuetara bidaiatzeko gai diren soluzioak sortzea ere.

NAZIOARTEKO SAREAK: NOR DA NOR?

- **Under2 Coalition**

Under2 Coalition 2050ean, beranduenez, zero emisio garbiak lortzeko konpromisoa duten estatu eta eskualdeen nazioarteko sare bat da. 183 estatu, eskualde, probintzia eta nazioz azpiko gobernu ordezkatzen ditu, baita beste erakunde batzuk ere, eta Climate Groupek du idazkaritza. Bere jarduera politika klimatikoen, gardentasunaren, diplomaziaren eta deskarbonizazio ibilbideen inguruan egituratzen da.

- **Regions4**

Regions4 nazioarteko sare bat da, eskualdeko gobernuen ahotsa klima aldaketaren, biodibertsitatearen eta Garapen Jasangarriko Helburuen agenda globaletara eramaten duena. COP31n, lehen planoan kokatu nahi du eskualdeen lidergoa, eta tokian bertan garatutako ekintzak nazioarteko konpromiso klimatikoak pertsonentzako eta lurraldeentzako emaitza nola bihurtzen dituen erakutsi.

- **Local2030 Coalition**

Local2030 Coalition Nazio Batuen sistemaren plataforma bat da, 2030 Agendaren lokalizazioa bizkortzeko, hau da, helburu globalak lurralde

bakoitzaren beharretara egokitutako politika eta jarduera bihurtzeko. UN-Habitat eta UNECE dira buru, eta Nazio Batuen, nazio, eskualde eta tokiko gobernuen, gizarte zibilaren, esparru akademikoaren, enpresen eta gazteriaren arteko zubi gisa funtzionatzen du. Antalyan, agenda horrek maila anitzeko gobernantzan, lurralde ezarpenean, finantzaketan, jarraipenean eta kontu ematean jarriko du arreta.

- **ICLEI**

ICLEI — Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen sareak hiri garapen jasangarriaren alde konprometitutako tokiko eta eskualdeko gobernuen nazioarteko sare bat da. Hiri eta eskualdeei emisioak murrizten, klima aldaketara egokitzen eta biodibertsitatea babesten laguntzen die, soluzio praktikoen, ezagutza trukearen eta lankidetzaren bidez. Halaber, tokiko ekintza nazioarteko agendekin lotzen du, eta politika globalek lurraldeen beharrak kontuan hartzea sustatzen du.